

MIK zentroak hitzarmena sinatu du Prospektikerekin, Millennium-en parte izateko, hau da erakunde- eta gizarte-berrikuntzaren inguruan ikertzeko mundu mailako proiektuan.

2014/05/16

MIK - Erakunde eta Gizarte Berrikuntzaren Kudeaketan Espezializaturiko Ikerketa Zentroak, Mondragon Unibertsitatean integratuta dagoenak, eta Prospektikerek (Millennium Proiektuaren nodoak) lankidetzaz hitzarmena sinatu dute, Prospektikeren bitartez MIK Millennium proiektuaren Espainiako nodoaren parte izateko. MIKeko zuzendari David Sánchezek eta Prospektikereko zuzendari Ibon Zugastik sinaturiko hitzarmenaren bitartez, MIKek harreman iraunkorra izango du Millennium Proiektuaren sareko mundu osoko kideekin, ikerketa-proiektuak eta beste lankidetzaz-jarduera batzuk (ekitaldiak, mintegiak, trukeak eta abar) sustatzeko erakunde- eta gizarte-berrikuntzaren etorkizunaren alorrean.

Millennium proiektuak eta horren think tank (aditu-batzorde) globalak, 1996an eraturikoak, mundu osoko korporazioetako, unibertsitateetako, GKE-etako, NBEko agentzietako eta gobernuetako adituak elkartzen ditu prozesu parte-hartzaile batean, 50 nodoren baino gehiagoren bitartez. Horietan, etorkizun hobea eraikitzeko munduko erronkei nola aurre egin ikertzen da, prospektibako tresnak erabiliz.

MIK ETA PROSPEKTIKER

Mondragon Innovation & Knowledge – MIK (www.mik.es) erakunde- eta gizarte-berrikuntzaren kudeaketan espezializaturiko ikerketa-zentroa da. MIK MONDRAGON Korporazioan eta Mondragon Unibertsitatean dago integraturik, eta Oñatin eta Irunen (Gipuzkoan) eta Bilbon ditu egoitzak. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragile gisa dago katalogatuta, eta Ikerketaren Eraitzen Transferentzia Bulegoko (OTRIko) eragile ere bada, enpresa-kudeaketa aurreratuaren alorrean.

Bestalde, Prospektiker - Prospektiba eta Estrategiaren Europako Institutua, Donostian eta Zamudion egoitzak dituena, prospektibaren ikerketaren alorrean nazioartean erreferente da, eta Millennium Proiektuaren (www.proyectomilenio.org) Espainiako Nodoa koordinatzen du.

